

**2013KO APIRILAREN 17AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamazazpia.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: goizeko bederatziak eta erdiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko martxoaren 22ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- BEASAINGO BIZIKLETA-BIDE SAREKO ARDATZ NAGUSIA
OSATZEKO GAUZATZE EDO EGIKARITZE PROIEKTUA:**

- Proiektua onartzea.

- Proiektua egikaritzeko dirulaguntza eskatzea.

Alkate jaunak (BILDU) hirigintza batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: proiektua onartzea eta dirulaguntza eskatzea.

AURREKARIAK

I.- 2013ko martxoaren 8ko GAOean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizikleta eta oinezkoen bideen udal sarea garatzeko programan aurreikusitako diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak argitaratu ziren.

II.- Aipatutako oinarrien arabera, diru laguntza jasoko duten oinarriak ondorengoak dira:

- Tokiko edo udal sarea osatzen duten bizikleten eta oinezkoen bideak eraikitze eta hobetzeko obrak egitea.
- Tokiko edo udal sarea osatzen duten bizikleten eta oinezkoen bideak eraikitze proiektuak idaztea.

Bi kasuetan, jarduerak aurtengo ekitaldian hasi behar eta 2013ko azaroaren 15a baino lehen amaituta egin behar dira.

III.- 2013ko apirilaren 2an Alkateak emandako Ebazpenaren bidez, ASTAZALDI ARK, SOCIEDAD LIMITADA PROFESIONAL enpresari, **“Beasaingo bizikleta-bide sareko ardatz nagusia osatzeko proiektua”** idazteko enkargua eman zitzaion. Aldi berean erabaki zen proiektu hori idazteko diru laguntza eskatzea adieraziz, ordainsarien kostua, 17.450,00 €koa gehi BEZ dela.

IV.- Aipatutako proiektua aurkeztu ondoren, azaltzen da hiru fasetan zatituta dagoela: 1. fasea (J. M. Iturriotz kalea), 2. fasea (kale Nagusia eta Nafarroa Etorbidea) eta 3. fasea (Igartza Oleta kalea).

Hirigintza Batzordeak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 243.834,86 €ko kontratazioa egikaritzeko aurrekontua duen, **“Beasaingo bizikleta-bide sareko ardatz nagusia osatzeko proiektuaren”** 1. eta 3. faseak onartzea.

Bigarren. Tokiko edo udal sarea osatzen duten bizikleta bideari buruzko, proiektu horretako 1. eta 3. faseetan aurreikusita dauden obrak egikaritzeko diru laguntza eskatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Aitor Aldasoro eta Josi Insausti jaunak, proiektuaren 1. fasea onartzearekiko abstenitu egin dira, “Porteria” parean dauden etxeetako espaloia zabalagoa izatea proiektatu beharko litzatekeela pentsatzen dutelako eta Ordizi aldetik Beasain aldera datozen ibilgailuak Joan XXIII kaletik joan beharrak arriskua sor dezakeelako kale honetako eraikinekiko. Adostasuna azaldu dute dirulaguntza eskatzearekiko.

M^a Mar Celaya, Alfonso Segade eta Garbiñe Zurutuza andreak, proposamenaren alde azaldu dira.

Horren ondorioz, **“Beasaingo bizikleta-bide sareko ardatz nagusia osatzeko proiektuaren”** 1. fasea onartzeari buruzko bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da.

“Beasaingo bizikleta-bide sareko ardatz nagusia osatzeko proiektuaren” 3. fasea onartzeari buruzko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Tokiko edo udal sarea osatzen duten bizikleta bideari buruzko, proiektu horretako 1. eta 3. faseetan aurreikusita dauden obrak egikaritzeko **diru laguntza eskatzeari** buruzko bozketa eginda, aho batez onartu da.

3.- ETORLUREKIN SINATUTAKO HITZARMENA: hitzarmena indarrrik gabe uzteari buruzko erabakia hartzeko proposamena.

Alkatea jaunak (BILDU), proposamen honen berri eman du:

“Gaia: Beasaingo Udalaren eta ETORLUR, S.A. ren arteko hitzarmena.

AURREKARIAK

I.- 2009ko ekainaren 11ko datarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapena Departamenduaren, ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A. eta Beasaingo Udalaren artean hitzarmena sinatu zen, ondorengo helburuarekin: *“Beasaingo udalaren eta Etorlur-en artean lankidetzak marko bat ezartzea da, udalerrriaren landa eremuari bultzada ematearen helburuaz, elkarrekin beharrezkoak diren ekintzak aurrera eramateko. Aldi berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren landa ingurunean eskuhartze eta garapenerako funtsezko elementua den Etorlurren LANDA LUR BANKUAREN bidez bere lurren kudeaketa iraunkorra bermatuz.”*

Hitzarmenak bi urteko iraupena du, automatikoki urtebeteko denboraldiz luzatuz, alderdi batek uko egiten ez duen bitartean.

II.- 2009ko urriaren 2an eta hitzarmen horren babesean, ETORLUREK Beasaingo bizilaguna den Martin Urdangarin Arteaga jaunarekin, kontratua sinatu zuen. Kontratu honen bidez, bertan deskribatzen diren lursailen

usufruktua SOZIETATEAri eskualdatzen zaio, LANDA LUR BANKUAN sartzeko.

Kontratuak hamar urteko iraupena du.

III.- 2010eko martxoaren 24an, ETORLUR eta Beasaingo Udalaren artean hitzarmen berri bat sinatzen da, Etorlur-eko Landa Lur Bankuan sartutako eta udalerrian dauden lursailetan ingurugiroari buruzko hobekuntzarako eta kontserbaziorako egiten diren obrak finantzatzeko eta egikaritzeko.

Hitzarmena sinatu zenean, Udalak obrak zuten aurreikuspen kopurutik (15.500 €, gehi BEZ) %45a (6.975 €) ordaindu zuen.

Hitzarmen honen iraupena, obrak likidatzea bitartekoa zen.

IV.- 2012ko otsailaren 7an, ETORLURek egindako errekerimendua jasotzen da. Errekerimendu horren bidez Udalari eskatzen zaio, 2.892,99 € ordaintzeko, obren likidazioa murriztu egin delako eta 9.867,99 €ko izan delako (MUGARRAK emandako faktura atxikitzen da).

V.- 2012ko abenduaren 10ean, Udalean sarrera izan zuen ETORLUREn izenean, Peio Gascón Arambillet jaunaren idatzia adieraziz Sozietatearen helburu soziala aldatu egin dela, eta Landa Lur Bankuarekin zerikusia zuen guztia helburutik kanpo geratu dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Departamentuak kudeatzea pasatzen dela.

Jakinarazpen honen bidez, Sozietateak Udalarekin sinatutako hitzarmenari uko egiten dio eta eskatzen du, beharrezkoak diren ekintza administratiboak ematea horretarako.

VI.- 2013ko otsailaren 13ko datarekin, ETORLUR, S.A.k Udalari jakinarazten dio ez dagokiola 2.892,99 €ko diruaren ordainketa egitea, Beasaingo Udalak ez duelako jaso inolako dirulaguntzarik Landa Garapenerako Goimen Elkartetik.

VII.- 2013ko martxoaren 4ko idatziaren bidez, ETORLUR, S.A.k ontzat ematen du Udalak emandako argudioa eta horren ondorioz espedientea bukatutzat ematen du. Idatzi horri, Martin Urdangarin Arteaga jaunarekin bere garaian sinatutako hitzarmena bertan behera uzteko, 2012ko abenduaren 12an sinatutako dokumentua atxikitzen zaio.

Hori guztia kontutan izanik, Alkatetza honek, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. 2009ko ekainaren 11ko datarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapena Departamenduaren, ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A. eta Beasaingo Udalaren artean sinatutako hitzarmena iraungitzat ematea.

Bigarren. Erabaki honen berri aipatutako bi entitate horiei ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengo gaia komentatu, jarraian aipatzen den irizpidea hartuz:

IGARTZA OLETA LUR AZPIKO GARAJEAK

Idazkariak azaldu du, Igartza Oletako lur azpiko garajeak emakida administratiboan emanda daudela eta garaje horietako edozein jabeak garajea saldu nahi duenean Udalarari jakinarazi behar diola. Udalak, epea irekitzen du garaje bat eskuratzeko interesa duenak izen-abizenak emateko eta gero zozketa egiten da.

66 zenbakia duen plazaren jabeak eskaera aurkeztu zuen garajea saltzeko eta aipatutako prozedura burutu ondoren gertatu dena da zozketan parte hartu duten zortzi pertsonen, azkenik adierazi dutela plaza horretan interesatuta ez daudela.

Saltzeko irtenbide bat emate arren erabaki da, saltzaileari jakinaraztea Udala prest egongo litzatekeela, sinatutako idatzi baten bidez berak bilatzen duen norbaiti saltzeko baimena emateko, baina idatzi hori bi aldeek sinatuta egon beharko litzateke.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.